

INDARTZE ETA LAGUNTZA NEURRIAK

1. Oinarrizko arloetan zatibitzeak: Euskara, Gaztelania, Ingelesa eta Matematika.

2. Terapeutikako-Pedagogia irakasleen laguntza.

Curriculuaren egokitzapena (CNE) behar dituzten ikasleekin lan egiten dute eta irakasgaien gutxieneko edukiak lortzeko laguntza behar dutenekin.

3. Hizkuntza-errefortzua programa (HIPI).

Helburua institutuko B ereduan ikasketak jarraitzeko gaitasuna lortzea duten ikasleentzat prestatua dago eta horretarako euskaraz ahozko eta idatzizko testuen ulermena eta ekoizpenaren maila egokira iritsi behar dute. Zenbait kasutan salbuespena eska daiteke, baina lau ikasturtetan gehienez.

Gaztelania ezagutzen ez duen ikasle bakoitzarentzat Hezkuntza Sailak 20 orduko arduraldia duen itzultzailea izendatzen du.

4. Curriculum desberdina eta HBSP.

Ikasketetan zailtasunak izaten dituzten ikasleentzat (erritmoak eta ikasketa maila) baina lortuak dituztenak irakasle eta ikasleekiko jarrera positiboa, klaseetara etortzea, puntualtasuna eta orokorrean araei errespetua eta Graduatua lortzeko motibazioa.

Lana talde txikian, tutoretza jarraipen handiarekin, gaiak eremutan bilduta, irakasgaiak bata bestearekin lotuta, curriculum bakoitzaren erritmo eta ikasketa mailetara egokitua eta hizkuntzaren trataera taldearen beharretara egokitua. Irakasle taldea oso murriztua izaten da.

5. Programa osagarriak.

Eskola ordu gehienak ikastetxetik kanpo izaten dira, baina beti ere ikastetxeko orientazio mintegitik jarraipen zuzena eginez.

6. Ardura psikopedagogikoa.

Orientazio Departamentuak psikopedagogi bitartekotza programa (banaka edo taldekoa) plangintza: Jokaera aldaketa, giza trebetasunak, arauak, mugak,...

7. Banakako tutoretza.

Banakako tutoreak ikaslearen jarraipen eta laguntza zuzena burutzen du orientazio departamentuaren zehaztasun eta babesarekin.

8. ikasle gorrentzat laguntza neurriak

Ikasle gorrek hurrengo laguntza jasotzen dute:

- Berariazko hiru irakaslek (Aransgi) eskolako edukiak indartzen dituzte aurrez zehaztutako helburuak jarraituz.
- Logopeda batekin ikasle bakoitzak astero bi saio izaten ditu entzumena eta lengoiaren errehabilitaziorako.
- Gela irekia eta berariazko irakasleak irakatsiko dien zeinuen lengoaia.